

» KONTZERTUA

Zirrara eta musika



Montse Auzmendi del Solar

Jakin-min ikaragarria sortu zuen Calixto Bieitok zuzendutako Bach-en *Johannes-Passion* oratorioak Arriaga Antzokian. Obra ederrenetako bat dugu, indartsua, sakona, Martin Luterok egindako Bibliaren itzulpenean oinarrituta.

Baina ez genuen topatu erreferentziazko bertsio arrunt bat. Aldez aurretik esan behar dut kritika hau oso pertsonala izango dela, eta esango dudanak ez duela zalantzan jartzen eskainitako apustuaren kalitatea edo berrikuntza saiakera txalogarria. Izan ere, begi-bistan zegoen publikoarengana iritsi zela obraren mamia edo mezua eta hori da helburu garrantzitsuenetako bat espektakulu guztietan.

Esandakoarekin, konturatu zarete ez zitzaidala bereziki gustatu ikusi eta entzundakoa. Nahiz eta aitortu meritu handiko ikuskizuna zela, entzule edo publiko bezala, ez nekien zertan zentratu horren aurrean. Suposatzen da antzezpenarekin lortu nahi zena zen Bach-en musikak adierazi nahi duen pasio bortitza hori aurre-aurrean ipintzea, *Johannes-Passion* obrak duen samurtasuna ezkutatzeko. Eta, zakarkeri edo baldarkeri puntu batekin topatu ginen, ezinezkoa transmitituz. Ez dakit beharrezkoa zen, eta ez mindulinkeriagatik, baizik eta ezinezkoa zelako arreta mantentzea benetan garrantzitsua

**Bach-en
Johannes Passion
antzeztutako
oratorioa**

BILBAO ORKESTRA
SINFONIKOA / BILBOKO
OPERA KORUA

Zuzendaria: Erik Nielsen.

Eszena zuzendaria:

Calixto Bieito.

Eszenografia:

Aida-Leonor Guardia.

Bakarlariak:

Joshua Ellicott, James Newby,
Jonathan McGovern, Carlos
Mena, Berit Norbakken Solset
eta Robert Murray.

den alderdian: musikan. Bestalde, gogoeta bat utzi nahiko nuke: Bach-en musikak ez du indar nahikorik? Gehigarri horiek behar al ditu? Ez dut uste. Edo, publikoak halakorik behar du Bach-en mamira iristeko? Horretan, bai, zalantzak ditut.

Hau guztia esanda, Arriaga Antzokiko akustika lehorra alde batera utzita, emaitza musikala benetan duina izan zen. Bakarlariak ongi bete zituzten beren paperak, nahiz eta askotan oso konplikatuak zen ahotso ederki kolokatzeari etzanda, makurtuta edo holako postura zailetan. Joshua Ellicott tenoreak *Evangelista* akatsgabean egin zuen, adierazkorra, eta James Newby tenorearekin batera, bakarlari onenak izan ziren saio honetan. Newby gazteak interpretazio izugarria egin zuen, sakona eta sinesgarria. Aktuazio konbentzigarria egin zuten baita ere Jonathan McGovern baxuak,

Pilatos-en rolean, eta Carlos Menak. Berit Norbakken Solset soprano norvegiarra distiraz aritu zen. Bilboko Opera Koruak garrantzi eszeniko inportantea izan zuen, eta adoretz bete zuten lana. Bilbao Orkestra Sinfonikoa, berriz, doia iritsi zitzaigun. ■



"Johannes Passion" eskaini zuen taldea Arriaga antzokian.

MARISOL RAMIREZ